



Euskarazko tesien VIII. KOLDO MITXELENA sariak

Erabakia, 2022ko urriaren 26koa, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearena, euskarazko tesien zortzigarren KOLDO MITXELENA sarien deialdia egiten duena.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren arabera, euskaraz egindako ikerketa bultzatzeko, erakunde biek bi urterik behin euskarazko doktorego-tesien KOLDO MITXELENA sarietarako deia egingo dute. Hitzarmen honen Jarraipen Batzordeak deialdien gestioari, oinarriei eta hautaketa-prozesuari dagokion guztia ebatziko du.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-mailako ekoizpen zientifiko gehiena Euskal Herriko Unibertsitateak sortzen du. Ekoizpen horren adierazle nagusietariko bat UPV/EHUUn urtero aurkezten diren doktorego-tesiak dira, 400etik gora. Tesi horien artean berrogeitik gora dira euskaraz idatziak, bai erabat euskaraz idatzita daudelako edo, nazioarteko doktorego-tesiei buruzko araudiaren barnean, testuaren zati esanguratsu bat euskaraz dagoelako.

Euskarazko tesi horien ekarpena bikoitza da. Alde batetik, beste hizkuntzetan eginiko gainerako tesiek bezalaxe, jakintzaren sakontzea eta zabaltzea ahalbidetzen dute. Eta, beste alde batetik, euskararen normalizazioaren prozesuan ere ezinbesteko laguntzak eskaintzen dituzte.

Gure artean, Koldo Mitxelena zenak inork baino hobeto landu eta garatu zuen ekarpen bikoitz hori. Alde batetik, bere lan bikainei esker, euskarari buruzko jakintza zabaltzen eta sendotzen lagundu zuen, bai Euskal Herrian zein nazioarte mailako ikerketa-sareetan. Beste alde batetik, euskal hizkuntzak berak ez zuen lortuko gaur egun daukan garapena eta hedapena arlo akademiko eta zientifikoetan Koldo Mitxelenak egindako funtsezko lanak kontuan hartu gabe. Ekarpen horiek, besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitateko bere katedratik eta Euskaltzaindiaren baitan egin zituen. Irakasle eta euskaltzain bikainaren omenez, euskarazko tesien sari honek Koldo Mitxelenaren izena darama.

Horrenbestez, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak honako hau adostu dute: bi erakundeen arteko hitzarmenean adosturikoa betetzeko, eta euskarazko ikerketa bultzatzeko eta sustatzeko asmoarekin, "Euskarazko Tesien Zortzigarren KOLDO MITXELENA Sariak" deitzea. Hori guztia kontuan harturik, honako hau erabaki dut.



ERABAKIA:

1. Helburua.

Xedapen honen helburua Euskarazko Tesien Zortzigarren KOLDO MITXELENA Sarien 2022. urteko deialdia egitea da.

Bost jakintza-arlo nagusietan (Artea eta Giza Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Osasun Zientziak, Zientziak, Ingenieritza eta Arkitektura) sari bana esleituko da.

2. Hautagaiak eta eskarien aurkezpena.

Euskal Herriko Unibertsitatean **2020ko irailaren 1etik 2022ko uztailaren 31ra arteko tartean euskaraz idatzi eta defendaturiko doktorego-tesiak aurkeztu ahal izango dira deialdi honetara**. Europar Tesi edo Nazioarteko Tesi gisa aurkezturiko tesiak ere onartuko dira, erabilitako hizkuntzetako bat euskara izan bada. Tesia defendatu duen doktoreak berak aurkeztu behar du hautagaitza, idatzi honi loturik doan formularioa betez eta formularioaren bidez tesiaren kopia bat bidaliz.

Eskariak **aurkezteko epea: 2022ko urriaren 27tik azaroaren 11 arte**.

Eskariak Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzaren webgunearen bidez egingo dira.

<http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/euskarazko-tesien-viii.-koldo-mitxelena-sariak> agertzen den aplikazio informatikoaren bitartez aurkeztuko dira. Eskaera online bidali eta gero, eskaera bidali dela egiaztatzen duen mezu bat jasoko du eskatzaileak. Mezu hori jasotzen ez bada, esan nahi du eskaria ez dela bidali. Aplikazio informatikoarekin arazorik izanez gero edo Interesdunek ezin badituzte eskaerak online aurkeztu, Erregistro Orokorrean (Leioa), campusetako erregistroetan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren leku 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein modutan aurkeztu ahal izango dituzte, honako honi zuzenduta: Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetza, Sarriena auzoa z/g, Leioa-Erandio Campusa, 48940 Leioa (Bizkaia).

Honako dokumentazio hau aurkeztu behar da formularioaren bidez:

- Formularioa bera beteta.
- Tesiaren kopia digitala: pdf formatuan.
- NANaren fotokopia.
- Curriculum Vitae osoaren kopia digitala, bereziki hirugarren atalean aipatuko diren merezimenduei buruzko argibideekin.



3. Balioespen-irizpideak

Epaimahaiak ez du tesiaren edukia epaituko, tesian erabili den euskararen kalitatea baizik, eta, behar izanez gero, tesiak komunitate zientifikoan lortutako eragina. Horretarako, batez ere idazkuntza-moldea eta terminologian eginiko ekarpenak hartuko dira kontuan.

Hizkuntzaren kalitateari dagokionez epaimahaikideek tesi bat baino gehiago berdin balioetsiko balute, honako irizpide hauek ere har litezke kontuan baremoa doitzeko:

- Tesian oinarrituriko argitalpen edo patenteen kopurua.
- Tesiaren edukia hedatzeko asmoz kongresuetan eginiko aurkezpenak.
- Tesiak arlo zientifikoan lortutako eragina (tesiari buruzko aipamenak liburu edo aldizkarietan; doktoreak emandako hitzaldiak).
- Tesiarekin loturiko egonaldiak beste erakunde akademiko batzuetan.

4. Epaimahaia

Eskariak aztertzeko epaimahai bat eratuko da. Honako kide hauek osatuko dute epaimahaia:

- 1-. Epaimahaiburua, UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea, edo hark izendaturikoa.
- 2-. Epaimahaiburuordea, Euskaltzaindiaren Iker sailburua.
- 3-. UPV/EHUko Euskarazko aholkularitza eta testugintzaren arloko zuzendaria.
- 4-. Bost jakintza-arloetako bina doktore, UPV/EHUko Euskararen arloko errektoreordeak izendatutako bana eta euskaltzainburuak izendatutako beste bana.
- 5-. Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzako teknikari bat, idazkari lanak egingo dituena. Iritzia eman ahal izango du, baina ez du botoa emateko eskubiderik izango.
- 6-. Ohorezko buruak: UPV/EHUko errektorea eta euskaltzainburua. Ohiko bileretara joateko premiarik ez dute. Halere, epaimahaiburuak edo epaimahaiburuordeak eska lezakete bileraren batera deitzea, iritzia eman dezaten. Ez dute botorik.

Tesiak aztertuko dituzten epaimahaikideek; eskariak aztertu ondoren eta balioespen-irizpideak kontuan hartuta, sariak nori eman proposatuko dio UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari. Epaimahaiaren ustez, aurkezturiko lanak saritzeko modukoak ez balira, sariak eman barik gera litezke.

5. Erabakia

Epaimahaiaren proposamena ikusirik, UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, Euskaltzaindiaren Iker sailburuarekin adostuta, dagokion erabakia hartuko du. Lanen egileei banaka jakinaraziko zaie



saridunak direla, eta bi erakundeen webguneetan argitaratuko dira sarituen zerrendak.

6. Sariak

Irabazleek diploma eta 2.000 € gordin jasoko dituzte.

7. Erregimen Juridikoa

Deialdi honen oinarrietan argi eta garbi aurreikusten ez den kasuetan, ondoko hauek aplikatuko dira: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua (Euskadiko ogasun orokorraren antolamendurako printzipioen Legearen testu bateratua onartzen duena) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoaren aurrekontu orokorren kargurako subentzioen berme eta atzera itzulketen erregimen nagusia arautzen duena.

8. Errekurtsoak

Erabaki honek eta deialdi honen barruan hartutako gainerako erabakiek administrazio-bidea amaitzen dute. Haien kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa ezarri ahal izango da, Euskararen arloko errektoreordearen aurrean, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere ezarri ahal izango da, zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan, berdin zenbatutako bi hilabeteko epean.

Leioan, 2022ko urriaren 26an

M. Juncal Gutierrez Mangado
UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea